

10.000 KABINA MANHATTANEN

Posted on 24/02/2012 by Naider

New Yorkeko taxi horiak hiriaren ikur nagusietako bat dira. bere arrastoa mugimenduan dagoen hiriaren arrastoa da, hirian mugitzen diren pertsonen joan-etorrien jarioa. Nola ulertu arrasto hori begirada batean? Tom McKeogh, Eliza Montgomery eta Juan F. Saldarriagak duela hilabete batzuk bistaratzeko eredu bat garatu zuten [CUNY High Performance Computing Center](#) eta 24 ordutan zehar 10.000 taxien ibilbideen irteera eta helmuga puntuetako datuak erabiliz eta Google Maps APIa gehituz, bideo honetako irudikapena lortzen da. Bere balio estetikoaz gain, interesgarria dena da hiriko banaketa espaziala hobeto ezagutzeko tresna gisa duen balioa, eremu bakoitzean jarduera handienaren garaiak eta une bakoitzean dentsitate-gailurrak.

There are no comments yet.